258. zk.
Bigarren aroa
Uztailak 15
2015

Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

Erreportajea
Zabaldu egin da Dies Oiassonis
3. orrialdea

Kirolak
Udaleku bereziak antolatu ditu Jaizubia Hipikak
8. orrialdea

4 Elkarrizketa: Karlos Zabala itzultzaileari elkarrizketa
5 Inkesta Udan Irunen geratuko zara?
6 Erreportajea Ttipi-Ttapa ekimena
8 Kirolak Udarako eskaintza Santiagotarretan
10 Gurasoentzat Jeloskor nago! Inbidia dut!
11 Haurren lanak Txingudi HH
12 Gazteen lanak San Vicente de Paul DBH1
12 Gaztea Moskuko Jaiak
14 Gazte infor.

Argazki lehiaketa

Argazki lehiaketa martxan jarri nahi dugu. Bidaltzen dizkiguzuen argazkien artean, bi aukeratu eta argitaratuko ditugu, zenbaki bakoitzean.

Edonor izan daiteke parte hartzaile. Ez dago adinari edo bizitokiari dagokion mugarik.

Gaia bakarra izango da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: urtearen amaieran, argitaratutako argazki guztien artean sari bat zozkatuko dugu.

Bete beharrekoak: argazkiak kalitate ona behar du izan. Argazkiarekin batera, deskribapen txiki bat bidali beharko du egileak.

Argazkiak bidaltzeko: jarozena@irunero.com

Irun atzo Irun gaur

Pinudi kalea

IUA: 40520

IUA: 23504

1965eko abenduaren 14an sortu zen Pinudi Kalea, Martin Aranburu kontratistaren eskariz.

Eremu horretan izandako pinudiak eman zion izena kaleari. Egungo etxebizitza blokeak eraiki ziren arte iraun zuen pinudiak, 70eko hamarkadara arte. Izen bereko parkean pinu ale batzuk gelditzen dira oraindik, beraz, finka horren toponimoa mantendu egin da, neurri batean.

Goiko argazkian "El Pinar" finka ikus daiteke. Nemesio Camino Zubelzu jaunarena zen. Mende hasierako goi mailako burgesia irundarreko kide zen Zubelzu.

Etxebizitzen eraikin handiek, zoruaren espekulazioak, komertzioek eta dibertsio zentroen pilaketak, modako toki bilakatu zuten 1975-1985 hamarkadan zehar. Aurrerantzean, Iparraldeko herritarrentzat bereziki erakargarri izan zen, asteburuetan Pinudi kaleko diskoteka eta tabernetara hurbiltzen zirelako. Gaur egun, eremu komertzial bihurtu da.

Iturria: José Monje. *Irungo kaleen izenak*.

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena eta Unai Oiartzun
Euskara zuzentzailea:
Unai Oiartzun
Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa
ion@943sansebastian.com
Argitaratzailea:
Baseclick S.L.
ISSN: 1134-0606
Lege gordailua:
SS-230-94.

Maiatzaren Lehena, 23 - 20304 IRUN
Tel: 673 39 84 57

Ayuntamiento Udala irun www.irun.org

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLITICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

Zabaldu egin da Dies Oiassonis

Irungo hiritarrei antzinako arbasoen bizimodua ezagutzera emateko sortu zuten Dies Oiassonis jaialdia. Sei urteko ibilbidea egin du jada, eta hiriko mugak gainditu ditu. Turisten interesa pizteko ahalmena duela erakutsi du, eta ideia horretan sakondu nahi dute antolatzaile diren Oiasso Museoak eta Irungo Udalak. "Inguruko bizilagunentzat erakargarri izan daiteke", azpimarratu du Miguel Ángel Páez udaleko Promozio Ekonomiko eta Turismo ordezkariak. Helburu horrekin, berritasunak dakartza aurten Dies Oiassonisek.

Uztailaren 17tik 19rako asteburua hartuko du Dies Oiassonis festibalak. Hiru egun horietan, antzinako erromatarren garaiko Oiasso hiriaren antza hartuko du museoak eta haren inguruak. Jaialdiaren asmo nagusia birsortze historikoa dela gogoratu du Mertxe Urteaga Oiasso Museoko zuzendariak: "Iraganera bueltatzeko aukera eskaintzen du, hura ezagutzeko eta harekin gozatzeko, modu atsegin eta entretenigarrian". Turismoa erakartzeko helburuak indarra hartu badu ere, antolatzaileek ez diote ohiko zehaztasun historikoari uko egin nahi izan. Horregatik, festibalak hartuko duen espazioa banatzea erabaki dute. Museoaren atarian eta Fermin Calbeton kalean informazio historikoa eskainiko dute. Junkaleko plazatxoa mistoa izango da. Istillaga plazan, Erromes plazan eta Euskal Jai frontoian, aldiz, bestelako jolas eta jarduerak egingo dituzte.

Azken guneari ez diote filtro historiko zorrotza pasako. Hala ere, han egongo da turisten erakargarr izan nahi duen berritasun nagusietako bat. Merkatu Erromatarra prestatuko dute, artisautzako produktuekin. Kaleak apaintzeko modua ere izango da. Antzinako erromatarren garaiko produktuekin lotuta, eskaintza gastronomikoa handituko dute. Pintxo erromatarra eskainiko dute inguruko tabernek, antzinako sukaldaritza erromatarrean erabiltzen ziren osagaiekin. Gainera, bi tailer gastronomiko egingo dituzte, Irun Dastatu ekimenaren baitan. Lehena, Gaztelumendi-Antxon jatetxeko Felix Mansók emango du, Bidasoa Bizirik erakundearen sukaldaritza gelan, Mirarietako Ama Birjinaren kalean. Bigarrena, Amona Kattalineko Txemi M. Artolak zuzenduko du, kalean bertan.

> "Inguruko bizilagunentzat erakargarri izan diateke"
> **Miguel Ángel Páez, Irungo Udaleko Turismo ordezkaria**

Moda eta antzerkia landu dituzte

Aurten Oiasso Museoak KoöKoö agentziarekin batera antolatu duen Moda Museoan lehiaketako sari banaketa egiteko baliatuko dute jaialdia. Sariketan parte hartu duten 43 diseinuak erakutsiko dituzte pasarelan. Horien artean, irabazlea izendatuko dute. Modak Antzinako Erroman zuen garrantzia nabarmendu du Mertxe Urteaga museoko zuzendariak: "Jantziak, bitxiak eta orrazkerak estetika hutsa baino gehiago ziren. Boterea edo klase sozial baten parte izatea irudikatzen zuten". Modaz gainera, antzerkia ere landu dute urtean zehar Oiasso Museoan, eta lanketaren emaitza aurkeztuko dute Dies Oiassonis jaialdian. Duela 2.500 urte Euripidesek sortutako Medea obra antzeztuko dute. Ana Pérezen eskutik prestatu du bertsioa, aktore amateurren talde batek.

Antzerkiarekin harremana izango du egitarauko jarduera nagusiak. Navigium Isidis ikuskizuna ez da berria, aurreko edizioetan ere egin izan dute. Isis jainkosari eskainitako prozesioaren antzezpena da. Nabigazio sasoiari hasiera emateko egiten zuten prozesioa Antzin Aroan. II. mendean Apuleio idazleak "Urrezko Astoa" obran egindako deskribapena jarraituko dute prozesioa irudikatzeko. 200 irundar baino gehiago ariko dira, museoan hasi eta Dunboako ubideraino joango den prozesioan.

> "Iragana ezagutzeko eta harekin gozatzeko aukera eskaintzen du"
> **Mertxe Urteaga, Oiasso Museoko zuzendaria**

KARLOS ZABALA:

“Koaderno bat behar izaten dut beti ondoan”

Itzulpengintzan ia txiripaz hasi zen arren, bi aldiz irabazi du Euskadi Literatur Saria Karlos Zabala irundarrak. Émile Zolaren *Parisen Sabela* liburuaren itzulpenagatik jaso zuen lehena. Bigarrena, Ivo Andric-en *Zubi bat Drinaren gainean* lana euskaratzeagatik. Gustura aritu da literatura itzultzen, baina alde batera utzi du, testuliburuak euskaratzen hasteko. Arrazoia, segurtasun ekonomikoa, eta bizitza antolatzeko aukera.

Euskal Filologia ikasi zenuen, eta ondoren itzulpengintza masterra. Nola sortu zitzaizun hizkuntzarekiko zaletasun hori?
Askotan erabakiak oso modu xelebrean hartzen dira. Nik uste filologia aukeratu nuela, momentu hartan euskaraz ez nekielako ondo. Hiru edo lau lagunek esan zidaten haiek ere egin nahi zutela, baina azkenean ni bakarrik hasi nintzen. Niri literatura asko gustatu izan zait beti, eta pentsatzen nuen gehiago landuko zela filologian.

“Seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartu nuenean hasi nintzen literatura itzultzen”

Zergatik aukeratu zenuen itzulpengintzaren adarra?
Karrera bukatu ondoren, itzulpengintzaren inguruko beka bat eman zidaten. Itzulpenen artxibo bat egiten ibili nintzen, liburutegian. Gero irakasle aritu nintzen bi urtez, Donostiako Santo Tomas Lizeoan. Baina banuen itzulpengintzaren harra barruan. Orduan masterra eskaini zuten lehen aldiz, eta izena ematea erabaki nuen.

Arabako Foru Aldundian hasi zinen itzultzaile lanean. Nolako esperientzia izan zen?
Masterra ikasten aritu nintzen bitartean, itzulpengintza beka lortu nuen berriro. Itzulpenak egiten hasi nintzen orduan. Gero oposizioak gainditu nituen, eta Diputazioan hasi nintzen lanean, 1993an. Bi lagun aritu ginen buletina itzultzen, industrialde batean zegoen inprimategi batean. Lan handia izan genuen urte haietan.

Foru Aldundian funtzionario izateak segurtasuna ematen zizun. Zergatik erabaki zenuen lana uztea?
Ezkondu ginenean, emazteak Hernanin lortu zuen lanpostua. Denbora batez Agurainen bizitzen egon ginen. Bera Hernanira joaten zen, eta ni Gasteizera. Aurrerago, seme-alabak etorri zirenean, batera edo bestera egiteko momentua zela erabaki genuen. Seme-alabak zaintzeko eszedentzia berezi bat hartu nuen. Orduan, literatura itzultzen hasi nintzen.

Nola eman zenituen lehen urratsak?
Literatura Unibertsala proiektua ezagutu nuen. Eusko Jaurlaritzak itzulpenak egiteko diru-laguntza bideratzen du, eta EIZIE itzultzaileen elkarteak kudeatzen du. Urtero, edo bi urtean behin, lehiaketa bat egiten da, liburuen itzulpenak esleitzeko. Niri Jules Verneren *Miguel Strogoff* eman zidaten. Hori aukeratu nuen, frantsesetik itzuli nahi nuelako, eta ez zelako oso liburu zaila. Abentura liburu bat da, azkar irakurtzekoa. Euskaraz ere hori lortu behar nuen.

Administrazioan aritzearekin konparatuta, nolakoa da literatura itzultzea?
Askoz aberasgarriagoa da. Gainera, badakizu norbaitek, behintzat, zure testua irakurriko duela. Administrazioko testuak berriz, derrigortuta itzultzen dira, eta ez ditu edonork ulertzen. Bestela, itzultzeak ez du misterio handirik. Etxean lan egiten nuen, ordenagailuarekin. Word artxibo batean bi zutabe jartzen nituen, batean originala eta bestean itzulpena. Batzuek itzulpen osoa egin eta gero birpasatzen eta berridazten dute. Nik, aldiz, denbora asko ematen dut esaldi bakoitzarekin. Gero koaderno bat behar izaten dut beti ondoan, edozein ohar apuntatzeko.

Klasikoak itzuli dituzu. Beharrezkoa da lan horiek euskaratzea?
Nik uste baietz, denetarik egon dadin. Naturalismoa zer zen jakin nahi baduzu, Zola irakurtzeko aukera izan dezazun, esate baterako. Literatura Unibertsala proiektuaren helburu nagusia hori da. Gainera interneten eskegitzen dituzte, edonork ditu eskura. Badakigu gutxi batzuek irakurriko dituztela, baina behintzat badute aukera.

Bi aldiz jaso duzu Euskadi Literatur Saria. Hala ere, literatura itzultzeari utzi diozu.
Sari horiek jaso nituenean, itzultzen jarraitzeko indarra eman zidaten. Animo aldetik bakarrik ez, ekonomikoki ere bai, literatura itzultzen ozta-ozta lortu nuelako mantentzea. Orain testuliburuak itzultzen nabil, enpresa batean. Eskari handia dago, lege berriarekin argitaletxeak liburu guztiak aldatzen hasi direlako. Niretzat beste bizimodu bat da, zeharo ezberdina. Orain ez dut etxean lan egiten, eta ordutegi finkoa dut. Bakarrik egotetik, jendez inguratuta egotera pasa naiz. Administrazioko lanaren antza du, neurri batean.

BAKAILAOA DASTA EZAZU

RJ BACALAO · bacalaos SANTYMAR · la barajilla bacalaos · Egullor Bacalaos

Inkesta

Udan Irunen geratuko zara?

Jokin Jimenez

Bi edo hiru egun eman ditut Asturias eta Kantabria aldean. Zehazki, Picos de Europa mendietan. Urtean behin saiatzen gara mendira joaten, emaztea eta biok.

Uda hemen pasako dugu, oporrak motzak izango ditut aurten, autonomoa naiz eta egoerara moldatu beharra dago.

Mª Mar Placeres

Udan, urtero Extremadurara joaten gara. Aurten ziur aski berriro joango gara, hori espero dut behintzat. Han etxea daukagu eta hiru asterako joateko ohitura dugu.

Nahiago dut kanpora joan, baina egia da hemen ere uda oso gustura pasatzen dugula.

José Santiago

Nonbaitera joatea gustatuko litzaidake, baina ez daukat aukerarik. Ekonomikoki ez nabil oso ondo eta hipoteka eta bestelako gastuak ordaintzea da lehentasuna.

Irunen geratuko naiz eta zer edo zer egingo dut. Dena den, etxetik kanpo jateko edo zerbait hartzeko ez dut aukera izango, oso garestia da eta.

Beñat Iparragirre

Normalean kanpoan bizi naiz eta aurten hemen geratuko naiz oporretan. Hemen hondartza daukagu eta aukera asko zenbait jarduera egiteko.

Halaber, astebururen batean Landetara joango naiz ziur aski, eta Donostiara ere bai. Inguruetako leku ezberdinetara.

Jon Mancisidor

Aurten udan lan egin behar dut. Beraz, Irunen eta eskualdean geratuko naiz. Dena den, zenbait gauza antolatuta dauzkat dagoeneko, Hondarribia Blues festibalera joango naiz eta Dies Oiassonis jaialdira ere bai.

Hendaiako hondartzara maiz joaten naiz. Hondarribikoa, igeriketa egiteko gustuko dut.

Leire Almandoz

Suedian bizi naiz urtean zehar eta oporrak Irunen pasako ditut. Hemen atseden hartzen dut, lasaitu egiten naiz eta ondo jaten dut. Gainera lagunak eta familia ikusteko aukera dut.

Hemen oso gustura nago, eguraldi ona egiten du eta hurbil dauden herri eta hiri askotara joaten naiz: Donostiara, Errenteriara, etab.

Oinez ibiltzearen onurak

Adinekoen ariketa fisikoa eta giza harremanak sustatzen ditu Ttipi-Ttapa ekimenak

Goizeko hamarretan, Luis Marianoko jubilatuen etxearen aurrean elkartu dira hogei gizon-emakume inguru. Prest daude osteguneroko ibilaldiari ekiteko. Eguzkiak gogor jotzen du jada. "Baten batek nahiago izan du hondartzara joan", igarri du Juan Ramón Pérezek. Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoko langilea da, eta taldea gidatuko du Ttipi-Ttapako irteeran. 60 urtetik gorako irundarrei zuzendutako ekimena da. Eusko Jaurlaritzaz gain, Osakidetzak, Irungo Udalak eta Nagusilan elkarteak parte hartzen dute antolaketan.

Colon ibilbidera bidean irten da taldea, argazkia atera ondoren. Iparralde Etorbidea hartzerako, multzotan banatzen hasi da. "Ezinezkoa da denak erritmo berean ibiltzea. Gu, normalean, atzean gelditzen direnekin joaten gara", azaldu du Juan Ramón Pérezek. Hendaiara doaz, Kaneta Portura. Ondoan dituen gizon-emakumeekin hitz egiten ari da Pérez, larunbatetan adinekoek Ficoban izaten duten dantzaldiaren inguruan. "Helburu nagusia ariketa fisikoa egitea den arren, giza harremanak sustatzea ere bilatzen dugu", baieztatu du Pérezek. Hirurogeita hemezortzi urte dituen Feli Godoyk berretsi ditu haren hitzak: "Nik urte asko eman ditut etxetik atera gabe. Adinekoak alferrak gara, askotan nahiago izaten dugu etxean telebista ikusten gelditu".

Batzuetan ez da nagikeria kontua izaten, badelako familia loturarik edo senideekin harremanik ez duenik. Baina Ttipi-Ttapako taldean, integrazio arazorik ez dago. Berriketan egin dute Kanetarainoko bidea. 3,5km-ko ibilbidea osatu dutela esan du Juan Ramón Pérezek. Guztira zazpi kilometro egingo dituzte. Ariketa onuragarria izango da parte hartzaileentzat. "Arazo kardiobaskularrak eta gaixotasun koronarioak ekiditeko, primerakoa da oinez ibiltzea. Gainera, tentsio muskularra mantentzen du, eta artikulazioak mugitzeko ona da", adierazi du Pérezek. Ibiltzea merkea da, eta ez du ahalegin handirik eskatzen. Horregatik, aproposa da adineko pertsonentzat. Hala ere, denborak eta distantziak eragina izaten dute azkenean. Ibilbidearen azken zatian, nekea agerikoa da Ttipi-Ttapa ekimeneko parte hartzaileen artean. Bereziki, Iparralde Etorbidearen zatirik maldatsuenean.

> "Bilobak zaintzea ondo dago, baina norberarengan ere pentsatu beharra dago"
>
> **Juana Mari Erro, Nagusilan elkarteko presidentea**

Erritmo ezberdinean, baina denak iritsi dira azkenean Luis Marianora. Bakar batzuk leher eginda diruditen arren, ibilbidearekin pozik daude. "Zenbat eta gehiago ibili, orduan eta gehiago nahi izaten dut hurrengoan. Gero eta hobeto sentitzen naiz", onartu du Feli Godoyk. Datorren ostegunean, beraz, ez du hutsik egingo. Probatu duten gehienek "errepikatu" dutela aipatu du Juana Mari Erro Nagusilan elkarteko presidenteak. Bueltatzen diren horiek erabaki zuzena hartu dutela uste du: "Bilobak zaintzea ondo dago, baina norberarengan ere pentsatu beharra dago". Ostegunero, goizeko hamarretan irteten da Ttipi-Ttapako ibilaldia, Luis Marianoko jubilatuen etxetik.

> "Arazo kardiobaskulrrak eta gaixotasun koronarioak ekiditeko, primerakoa da"
>
> **Juan Ramón Perez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoko langilea**

Ariketa fisikoa, funtsezko

Adineko pertsonen kopurua gora egiten ari dela, agerikoa da. Datuek ere hala esaten dute. Aurreikuspenen arabera, populazioaren %25ak 65 urte baino gehiago izango du Gipuzkoan 2020an. Joera horrek, dependentziaren edo gaixotasun kronikoen moduko arazoen gorakada eragingo du. Horiek ekiditeko, ariketa fisikoa egitea ezinbesteko baldintza da. Munduko Osasun Erakundeak astean 150 minutuko ariketa fisiko moderatua egitea gomendatzen die 65 urtetik gorakoei. 2013ko Euskal Osasun Inkestaren arabera, Gipuzkoan, adin tarte horretako emakumezkoen %39ak eta gizonezkoen %25ak ez du gutxieneko ariketa fisikoa egiten.

Parkeak animatzen ari da Girabira

Ohiko lasaitasunaren arrastorik ez dago Soroxarta parkean. Elektropatxarangaren doinuek burrunba egiten dute zuhaitz handien artean. Haurrak gurasoekin dantzan ari dira, ikuskizunarekin pozik. Toallak eta mahaioihalak lurrean zabalik daude, bazkariaren apurrak gainean dituztela. Beste haur batzuk parkean zehar barreiatuta dabiltza, zirkoarekin lotutako tailerretan ikasten. Bizitza eman dio Girabira ekimenak Soroxartari.

Aurrekontu parte hartzaileetan, hiriko parkeetan zuzeneko musika eskaintzea proposatu zuen gazteen multzo handi batek. Irungo Udalak, Txikis del Bidasoa eta Ezmugak taldeei eman zien proposamena garatzeko ardura, lehenago Txikimusika ekimena antolatu izan dutelako. Emaitza, Girabira proiektua izan da. Bost saio egingo dituzte urrira arte, Irungo parke ezberdinetan. “Espazio publikoak biziberritzea da asmoa. Bide batez, eskualdeko sortzaileen lana ezagutzera ematen dugu”, azaldu du Ezmugak elkarteko Carlos Sanchezek. Zuzeneko musikaz gainera, bestelako eskaintza ere egingo dutela nabarmendu du: “Musika da saio guztiak lotzen dituen haria. Baina abiapuntu hori hartuta, mami gehiago sartu nahi izan dugu”. Saio bakoitzean, gai edo diziplina bat da protagonista. Lehena parkourraren ingurukoa izan zen, Dani Sampayo irundarraren parte hartzearekin. “Irunen parkour maila handia dago, jende askok ez dakien arren”, gogoratu du Sanchezek. Ekainaren 6an egin zuten Girabirako lehen saioa, Sargia parkean. El octavo árbol eta Sangre de mono taldeek eta DJ Setak jarri zuten musika.

Soroxarta parkekoa, bigarren saioa izan da. Uztailaren 11n egin dute, zirkoa gai hartuta. Batzuentzat, parkea ezagutzeko modua izan dela baieztatu du Txikis del Bidasoako Pía Alzagak. “Batek baino gehiagok galdetu digu ea parkea non zegoen” Jaxenolaf eta Armiarma elkarteek malabarismo edo oreka tailerrak eskaini dituzte. Pulsimpatik jolasa ezagutzeko aukera ere izan dute hurbildu direnek. Hiru emanaldi egon dira: Oskar Benas y Los Herejes eta Elektropatxaranga musika taldeenak, eta Berto magoarena. “Jarduerak parke osoan zehar banatu ditugu, jendeak, alde batetik bestera ibilita, parkea ezagutu dezan”, aipatu du Alzagak. Traba handiena eguraldi hodeitsua izan dela onartu du: “Pena izan da, baina eguraldia ez dago gure esku. Egia da uste baino jende gutxiago hurbildu dela. Dena den, nik uste etorri denak ondo pasa duela”. Piknikarekin hurbildu dira hainbat familia, antolatzaileek zabaldu nahi duten ohitura barneratuta. Jardueretan gogotsu parte hartu dutela azpimarratu du Carlos Sanchezek: “Jendea ez da ikusle soila. Jarrera aktiboa bilatzen dugu”.

Proiektua zaintzen ari dira

Girabirako saio batetik bestera, ikasten eta hobetzen saiatuko dira antolatzaileak. --Beste hiru egingo dituzte aurten. Zinemaren ingurukoa, abuztuaren 21ean, Alai Txokon. Graffitiari buruzkoa, irailaren 19an, Sargian. Txikimusika ekitaldi batekin amaituko dute, urriaren 4an, Mendibil parkean. Hortik aurrera, proiektua sendotzea eta hurrengo urteetan errepikatu ahal izatea izango dute helburu. “Komunikazioa eta diseinua asko lantzen eta zaintzen ari gara”, adierazi du Carlos Sanchezek. Oinarri sendoa eman nahi diote Girabirari, indarrez hazi ahal izan dadin.

MOTA GUZTIETAKO LAN ETA KONPONKETAK ETXETAN NAHIZ DENDETAN

- Arotzeria
- Margolanak
- Zaharberritze lanak
- Lorategiak
- Iturgintza
- Sarrailak
- Elektrizitatea
- Instalazio zein muntaketak
- Garbiketa bereziak eta abar

DAVID:
655 70 98 93

Lehen harremana, udaran

Piraguan edo arraunean hasteko aukera eskaintzen dute Santiagotarren ikastaroek.

Santiagotarrak Kirol Elkarterako sarbide izan ohi dira udako ikastaroak. Goi mailan aritu diren arraunlari eta piraguista gehienek ere egin zituzten, txikitan. Zortzi urtetik gorako haurrek parte hartu dezakete bi asteko ikastaroetan. Denbora horretan, urari beldurra kendu, egonkortasuna lortu, eta lehenengo ibilbideak egingo dituzte. Baina batez ere, lagunen artean ondo pasako dute.

Arrauna, ur lasaiak eta ur biziak dira Santiagotarrak Kirol Elkartearen sekzioak. Ikastaroak ere, multzo horietan banatuta daude. Aurten, bolo-bolo dabilen modalitate berezi bat gehitu dute, Stand Up Paddle Surf-a. Bi asteko ikastaroak dira, baina aste bakoitzean modalitate bana probatzeko aukera dago. “Normalean gurasoek animatzen dituzte sekzio batera edo bestera. Baina ondo dago haurrek denak proba-tzea”, adierazi du Oihan Sayar piraguistak. Bera udako ikastaroetan hasi zen piraguan, eta ikastaroetako monitore da gaur egun. Olatz Zabala elkarteko presidenteak ere bide berdina jarraitu du. Denbora azkar pasa dela onartu du: “Niri gertatu zait haur batzuen monitore izatea, eta denbora gutxian haur horiek nire taldekide bilakatzea”.

Ordu eta erdiko hamar saio egiten dituzte ikastaroko, aste bakoitzean. Hasteko, igeriketa proba gainditu behar izaten dute parte hartzaileek. “Ezinbesteko baldintza da”, baieztatu du Olatz Zabalak. Igeri egiten jakinda ere, batzuek beldurra izaten diote piraguan edo arrauneko ontzian sartzeari. Zalantzak lehen bi egunetan uxatzen dituztela azaldu du Zabalak: “Egonkortasuna lortzea izaten da lehen urratsa. Hortik aurrera, ibaian gora joaten hasten dira. Azkar hartzen dute martxa”. Teknika barneratzen hasteko jarraibide batzuk ematen dituzten arren, Zabalak onartu du ikastaroetan ez dela egoten hobekuntza handiak egiteko denborarik. Ez da haien lehentasuna. Oihan Sayarrek argitu du zein den ikastaroen xede nagusia: “Lortzen dena da kirolari gustua hartzea eta giroan sartzea”. Ikastaroaren ondoren, teknifikazio saio batzuk egiteko aukera dago, klubeko egituran sartu aurretik.

Helduentzako aukera dira ikastaroak eta alokairuak

Hamasei urtetik gorako haurrak, helduen taldean sartzen dituzte. Gurasoek ere badute lekua ikastaro horretan. “Askotan haurrak ekartzera etortzen dira, eta jakin-mina sortzen zaie”, adierazi du Olatz Zabalak. Horri konponbidea emateko beste aukera da piraguak edo arrauneko ontziak alokatzea. “Irunen badago jende asko sekula Bidasoko irletatik buelta bat eman ez duena”, gogoratu Zabalak. Gomendagarria dela eta arriskurik ez dagoela azpimarratu du: “Txalekoa eramaten dute, eta ontziak eta piraguak ez dira iraultzen. Gainera, monitore bat hartzeko aukera dago”. Gutxi dira udaran zehar pala edo arrauna ez hartzeko aitzakiak.

SANTIAGOTARREN DENBORALDIKO EMAITZARIK ONENAK

Ur lasaiak:

-Laugarren postua Estatuko Maratoi Ligan.

-Olatz Zabalaren eta Jon Morenoren brontzezko dominak Espainiako Maratoi Txapelketan.

-Ania Perezen eta Tania Prolen dominak kadete mailako Espainiako Txapelketan.

Ur biziak:

-Klara Olazabalen urrezko domina Europako Txapelketan, taldekako C1 proban.

-Ander Elosegiren bederatzigarren postua Europako Txapelketan, C1 proban,.

-Telmo Olazabalen laugarren postua 23 urtez azpiko Munduko Txapelketan, K1 proban.

Arrauna:

-Beñat Rekartek eta Ander Legazkuek osatutako bikoaren zilarrezko domina, jubenil mailako Espainiako Txapelketan.

-Borja Portosek, Jon Aizpioleak, Mikel Aragonek eta Ioritz Telleríak osatutako laukoaren zilarrezko domina, Espainiako Txapelketan.

-Nerea Seijok, Elene Lopetegik, Garazi Lasartek eta Ana Pagesek osatutako laukoaren laugarren postua, Espainiako Txapelketan.

CENTRO KINEESIS
- METODOA: K-STRETCH ®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT
www.kineesis.net www.k-stretch.com
Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

Udaleku bereziak antolatu ditu Jaizubia Hipikak

Uztailean eta abuztuan, udalekuetan parte hartzea ohiko jarduera izaten da haur gehienentzat. Eskaintza zabala da. Asko udaleku arruntak izaten dira, baina badaude adibide bereziak ere. Irunen, Jaizubia Hipika Elkarteak Zaldiketa Udalekuak antolatzen ditu. Zaldiz ibiltzeaz eta ekitazioaren mundua ezagutzeaz gain, bereziki urarekin lotutako bestelako aktibitateekin gozatzen dute haurrek. Zazpi urtetik gorakoak hartzen dituzte.

Udako ikastaro soila eskaini beharrean, udalekuak antolatzea erabaki zuten Jaizubia Hipika Elkarteko kideek, 2010ean. Horretarako, Txiribuelta aisialdi elkartearekin jarri ziren harremanetan. Emankorra izan zen kontaktua. Aurten seigarren aldiz antolatu dituzte Zaldiketa Udalekuak. “Beste leku batzuetan egiten ziren horrelako udalekuak. Añezkarren, Nafarroan, esate baterako. Guk eredu berdinari jarraitu genion”, gogoratu du José Luis Gamarra Jaizubia Hipikako presidenteak.

> “Dieta osasuntsua prestatzen ahalegintzen gara”
>
> **Berta Miranda, tabernako arduraduna**

Ekainaren 21etik abuztuaren 29ra egingo dituzte udalekuak, aste beteko txandetan banatuta. Inguruko haurrentzat, badago soilik eguneko jardueretan parte hartzeko aukera. Zaldidegian bertan lo egiten dutenek, egurrezko etxola batean hartuko dute ostatu. Otorduak, zaldidegiko tabernan egingo dituzte. “Dieta osasuntsua prestatzen ahalegintzen gara, haurrek ohitura onak barnera ditzaten”, baieztatu du Berta Miranda tabernako arduradunak. Zaldian ere aritzen da irundarra.

Eskualdetik kanpoko haurrak dira, batez ere, bigarren aukera hautatzen dutenak. Batzuk inguruko izaten dira, baina urrutitik ere iristen dira: Huescatik, Zaragozatik edo Madrildik. Mirandak azpimarratu du Iparraldeko haurrak erakartzen saiatzen direla: “Hizkuntzaren aldetik udaleku aberatsak dira. Hizkuntzak lantzeko aukera ematen dute”. Helburu hori betetzeko, ahalegin handia egiten dute publizitatean, Zaldiketa Udalekuen proposamena ahalik eta gehien zabaltzeko.

Hipika baino gehiago

Goizetan egiten dituzte ekitazioarekin lotutako jarduerak. Erritmo ezberdinean lan egin ahal izateko, taldeak mailaren arabera banatzen dituztela argitu du Xabi Berrotaran Jaizubiako monitoreak. “Badago jendea sekula zaldian ibili ez dena. Horiekin hastapen klaseak egiten ditugu”. Maila handiagoa dutenekin, Galopeen azterketak egiteko aukera ematen dute. Hipikako mailak dira Galopeak. Zaldiekiko errespetua eta segurtasun neurriak ere lantzen dituzte.

> “Barnealdetik etortzen direnek asko estimatzen dituzte uretako jarduerak”
>
> **Xabi Berrotaran**

Arratsaldetan, zaldidegiko eremutik kanpo irteten dira haurrak, Txiribueltako begiraleen laguntzaz. Jaizubiaren kokapena baliatuta, itsaso aldera jotzen dute gehienetan, surfa, stand up paddle-a, hondartzako jolasak, edo itsasontzian ibilbideak egiteko. “Barnealdetik etortzen diren haurrek asko estimatzen dituzte jarduera horiek”, adierazi du Berrotaranek. Uretan sartzeko eguraldirik egiten ez duenean, Aquariumera, Hipodromora edo Rokodromora joaten dira. Afal ondoren gaubela izaten dute, jolasekin, antzerkiarekin edo ipuin kontaketarekin. Aspertzeko denbora gutxi izango dute Zaldiketa Udalekuetan.

hirugarren atala

NOLA BIDERATU SEME ALABEN EDO HAURREN ARTEKO JELOSIAK?

Jelosia eta inbidia emozioak normalak dira, baina hauek era positiboan bideratzea garrantzizkoa da. Nola lagundu horretan? Guraso gehienei gure seme-alabak etengabe liskarretan ari direla iruditzen zaigu, eta hori normala ote den galdetzen diogu gure buruari. Zergatik daude beti liskarretan? Zergatik nahi du batek besteak nahi duena? Nola izan daitezke hain desberdinak berdin hezi baditugu? Liskarraren erdian oihuka ikusten dugu maiz gure burua: "Ongi konpondu, anai-arrebak zarete eta!"

Hona harremanetan eragiten duten faktore garrantzitsuenak:

• Lehenik eta behin, mito bat aztertzeari ekingo diogu: orokorrean, badago anai-arreben artean beti ongi konpondu behar diren aurreiritzia. Azter dezagun oharkabean ematen dugun agindu hori. Pentsa dezagun, nola ez dute, bada, liskarrik izango elkarrekin hainbeste denbora pasa eta hainbeste gauza konpartitu behar badituzte? Anai-arrebak normalean espazio mugatuetan hazten dira, etxe batean ordu asko elkarrekin pasatzen dituzte, gurasoen arreta konpartitu behar dute baita etxeko jostailu, leku edo tresnak ere. Ez al da ba normala liskarrak izatea?

• Partekatzearen beharrak anai-arreben artean hurbiltasun sentimendua sortzen du, baina baita elkarrengandik bereizi beharrarena ere. Ondorioz, elkar uztartu beharreko bi sentimendu sortzen dira; alde batetik elkarren arteko dependentzia eta erantzukizun sentimendua, eta bestetik, elkar banatzearen beharrak sortzen duen autonomia eta identitate propioa garatzeko sentimendua. Beraz, haurren artean beti ematen da hurbiltasun eta urruntasun behar baten arteko gatazka.

•Badirudi anai-arrebek, batez beste, geneen % 50 partekatzen dutela, baina testuinguruak haien arteko ezberdintasunak bideratzen ditu. Independentzia eta afirmazioa guztiz beharrezkoak dira. Ondorioz, anai zaharrena arduratsua bada, bestea agian ez da honelakoa izango; zaharrenak etxetik kanpo lo egitea gustuko ez baldin badu, besteak bai, gustuko izango du, bere burua azpimarratzeko; lehena jatun txarra bada, bigarrena ez da izango …

• Eguneroko bizitzan haserre edo injustizia asko gorde behar izaten dugu, ezin baitiegu denei aurre egin. Beraz, normala izaten da haserre inkontzienteak konfiantza dugun lekuan azaleratzea. Mingarria da, baina osasuntsua ere bai.

• Hori oharkabean egiten dute. Familian bere lekua izateko eta desberdinak direla baieztatzeko egiten dute. Bide hori egitea haurraren garapen positiborako onuragarria da. Denok gara ezberdinak, bakarrak eta errepika ezinak, eta ez badugu gure ezberdintasuna onartzen eta baloratzen, beste pertsonekin alderatuko dugu gure burua. Horrela bide okerretik goaz, konparaketak etengabeko sufrimendua baitakar.

Liskarren aurrean guraso edo helduok nola jokatzen dugun aztertzeari ekingo diogu. Pentsa dezagun, zein rol har ditzakegu helduok gure seme-alaben arteko liskarretan?

-Haurrei galdetu gabe erruduna nor den aztertzen aritzea eta baten alde egitea: Mikelek arrazoi izango du Beñatek beti gauzak kentzen dituelako; Amaia da errudun beti koska egiten duelako; jope, Iñigok jada 8 urterekin ez lituzke horrelako gauzak egin behar…

-Errua zaharrenari bota, hau baita eredu izan behar duena, edo txikiari errua bota beti gauzak nahasten dituelako …

-Biak baztertu edo zigortu kokoteraino gaituztelako.
Baina, gai ote gara haurren arteko borroka batean nor hasi den jakiteko ? Inporta al du benetan? Haurrek baten edo bestearen alde egitea eskatzen digute, bestea zigortuta, beraiek garaile senti daitezen. Baina hori al da konponbidea?

Egoera hauek estresez betetako bizimodu bat sortzen digute. Gatazkak konpontzeko goian aipatutako bideak erabiltzen baditugu, liskarrak areagotzen ditugu, haurren sentimenduak negatibo bilakatuz.
Anai-arreben arteko gatazkak normaltzat hartzen baditugu, kopurua txikiagotzea lortuko dugu. Beren kabuz haien arteko gatazkak konpontzen ikasi behar dute.
Zein da helduaren papera orduan?

- Gatazkak normalak direla sentitu eta onartu.
- Konponbiderik ez dagoela ikustean, esku hartu: zer gertatu den galdetu eta beraien emozioak kanporatzen lagundu (gehienetan ezin ditugu konponbideak aurkitu).
-Haur bakoitzak bestearekiko mingarri jokatu izanaren ardura onar dezan saiatu. "Mikelek mindu zaituela diozu, baina zuk mingarria den zerbait esan edo egin al duzu?" Gogoratu ez dugula haurra errudun egin behar. Haurrak errudun sentitu behar du, baina bere izatea ezeztatu gabe: "Nire jokaera desegokia izan da eta errudun sentitzen naiz, baina errua kanporatuz doa konpontzen saiatzen naizen momentuan" Horrela pertsona errudunak sortu beharrean, pertsona arduratsuak izaten lagunduko diegu: nire jokaera desegokiaz ohartu, ardura hartu eta konpondu.

-Haurrek konponbidea aurkitzen ez badute, guk proposamenak bota ditzakegu. Ez ditugu behartuko, bestela ez da beraien aukera izango.

-Haurren izaera propioa onartu eta ezberdintasunak baloratu konparaketak ekidinez: "Amaiur ona da futbolean, baina zu dantzari bikaina zara. Denok gara ezberdinak. Zaren bezalakoa zoragarria zara maitea".

Handitzen garenean elkarren arteko harremanaren kalitatea ez da haurtzaroan izan dugun gatazka kopuruaren arabera neurtzen. Aipatutako faktore anitzen mende dago (konparaketa maila, identitate propioa, gatazkak modu positiboan bideratzea …). Hala ere, badago izugarrizko garrantzia duen faktore bat: elkarrekin bizi eta eraikitako harreman emozionala, edo batak bestearen bizitza emozionalean izan duen eragina. Beraz, zaila izan arren, utz ditzagun elkarrekin bizitzen, bai maitasunean bai gatazketan. Ondo izan!!

Mapi Urresti Ortiz
KUTTUN AHOLKULARITZA PSIKOPEDAGOGIKOA
kuttun.kuttun.@gmail.com

Txingudi Ikastola HH - Miguel Ángel, 4 urte

Arrigain Asesores S.L.

ZERGAK - LAN-KONTUAK - KONTULARITZA - ASEGURUAK

Asesoría Arrigain

Zerbitzuak:

Kudeaketa administratiboak, laboralak,
kontularitzakoak eta zergenak
Ibilgailuen eskualdaketak
Ondarearen transmisioak, dohaintzak, oinordekotzak...

Errenta aitorpenak
Aseguru orokorrak
Eta abar...

San Ramon kalea, 3 atzea, sarbidea Euskal Herria hiribidetik – Irun Telf. 943636080 - 676756975 www.arrigain.es asesoria@arrigain.es

San Vicente Paul DBH1 - 2. Leire. R.

TXISTEAK

Haur batek amari esaten dio, ikastolatik etxera joandakoan:

- Ama, bi notizia dakartzat zuretzat. Lehengoa oso ona da: matematikan 10 atera dut.

- Oso ongi, oso ongi!
Eta zein da bigarren notizia? - galdetzen dio amak.

- Ba, lehenengo notizia gezurra dela.

Irakaslearen eta ikaslearen arteko elkarrizketa.

- Zenbat hezur dauzka zure gorputzak?

- 2018, jauna - erantzun du ikasleak.

- Burugogorra! Ez al nizun esan atzo 2017 hezur dauzkala giza gorputzak?

- Bai, baina... gaur oliba hezur bat irentsi dut.

AMAITZEN ARI AL DA SARE SOZIALEN ERREGETZA?

Dena doa azkar interneten munduan. Hain bizkorrak dira aldaketak, marka nagusiek adi-adi egon behar izaten dutela, kontsumo ohituren aldaketek ezustean harrapa ez ditzaten.

Azken aldian, kontsumitzaileen etxeetan sartzeko tresna bikainak ziren sare sozialak, erabiltzaileek gero eta denbora gehiago ematen zutelako Facebook-eko edo Twitterreko profiletan. Lagunekin edo ezagunekin harremanetan jartzeko erabiltzen zituzten erreminta horiek. Baina orain, mehatxupean al daude sare sozialak?

Ikerketa batzuek lehen arrastoak eman dituzte jada, sare sozialen erregetza ordezkatzeko gai izan daitekeenaren inguruan. Mezularitza aplikazioek jar dezakete arriskuan sare sozialek gaur egun duten nagusitasun hori. Badirudi erabiltzaileen hiru laurdenak mezularitzako app eramangarriak erabiltzen dituela, lehen Facebook-en zituen elkarrizketak aurrera eramateko. Ikerketen datuak orokorrak dira, beraz, ez da tokiko joera konkretu bat.

Egonkortutako sare sozialek ere ez diote joerari iskin egin. Ikerketaren datuen arabera, Facebook-en ere nabari da kontsumo ohituraren aldaketaren eragina. Erabiltzaileek Snapchat, Whatsapp edo WeChat aplikazioetara eraman dituzte elkarrizketak.

Baina aplikazio mugikorrak sare sozialei aurrea hartzen ari baldin badira, zer gertatzen ari da garai batean komunikazioaren merkatuan zalantzan jarri ezineko lider izan ziren beste elementu batzuekin? Asko dira “betiko” testu mezuek indarra galdu dutela erakusten duten analisiak. SMS eta MMSak jada ez dira kontsumitzaileen artean mezuak bidaltzeko lehen aukera.

Sektoreko marka nagusiek ez diote trenari ihes egiten utzi. Gero eta ohikoagoa da Whatsapp erabiltzea jarraitzaileekin zuzenean harremanetan jartzeko. Gakoa da ikustea nola onartuko dugun gure pribatutasunean egindako intrusio hori.

Pablo Moratinos
Marketing Online-ko aholkularia
3yMedia Comunicación Digital

Birmoldatzearen ondorengo jaiak

Urdanibia plazarena ez da 2015eko Moskuko Jaietako berrikuntza bakarra izango

2015eko Moskuko Jaietako kamisetak aurreko edizio batzuetako kartelen gaiak biltzen ditu. Plazaren eraberritzea aprobetxatu nahi izan du Jai Batzordeak, atzera begirakoa egiteko. Duela bi hamarkada baino gehiago, ordura arte Ama Xantalengo Jaiak antolatzen zituen Festejadora ordezkatu zuen Moskuko Jai Batzordeak. Orain, belaunaldi aldaketa esanguratsua jasan du. Alba Sistiaga da eraldatze horren adibide.

Ezohikoak izan ziren joan den urteko Moskuko Jaiak. Urdanibia plaza obretan zegoenez, ezin izan zituen egitarauko jarduera asko hartu. Txosnarik ez zen egon, eta eszenatokia ohi baino txikiagoa izan zen. Hitzordu gehienak plazaren alboetara lekualdatu zituzten. Aurten, obrak amaituta, plaza berreskuratuko dute jaiek. Abuztuaren 13tik 16ra emango diote kolorea Urdanibia plazaren inguruari. Baina horretarako, ekainaren hasieratik ibili dira lanean Jai Batzordeko kideak. Egunaren arabera, jende kopuru eta indar ezberdinarekin aritu dira bileretan. “Batzuetan lau lagun egon gara, beste batzuetan hamar. Askoz gehiago ere ez, hori egia da”, onartu du Alba Sistiagak. Jaiak antolatzeko ardura hartu duen belaunaldi berriko kidea da. “Joan den urtean haustura bat egon zen, jaiak antolatzen zebilen jende batek nazkatuta amaitu zuelako. Urteak zeramatzaten aldaketa eta jende gaztearen inplikazioa eskatzen”, azaldu du.

Lehen bilerak oso zehatzak izan ziren. Lehentasunak argi zituztela baieztatu du Sistiagak: “Presa gehien zuena zen baimenak lortzea. Horretarako, auzo elkartearekin ados jarri behar izan genuen”. Gero egitaraua lantzen hasi ziren. Antzeko eredua jarraitzen dute urtero, badaudelako beti funtzionatzen duten jarduerak. Ostegunean txosnaren irekitzea egingo dute, eta ondoren, emanaldi txikiren bat. Ostiralean pregoia eta hasierako traka egingo dituzte. Paseo historikoa, haur jolasak eta kontzertuak izango dira gero. Larunbatean, pala txapelketako finalak jokatuko dituzte goizean. Herri Bazkaria egongo da eguerdian. Ondotik, jai giroa arratsalde osoan zehar, Bonberenea txarangarekin eta gaueko kontzertuarekin. Igandean bertso saioa egongo da, baina aldaketa batekin. “Aurreko urteetan, igande goizean izan denez, ez da oso jendetsua izan. Hori dela eta, arratsaldera pasatzea da asmoa”, azaldu du Alba Sistiagak. Bertso saioaren ondoren, futbolin eta mus txapelketetako finalak jokatuko dituzte. Kontzertu txiki baten ondoren, amaierako trakak agurtuko ditu Moskuko Jaiak.

Beharrezkoa da auzokoen babesa

Egitaraua prestatzeko, inguruko elkarteen, tabernen eta komertzioen babesa bilatzen du Jai Batzordeak. Lanak bere fruitua ematen duela adierazi du Sistiagak: “Tabernariei eta dendariei ekarpen txiki bat eskatzen diegu. Dirua izan daiteke, edo sarietarako produktuak, bestela. Erantzuna baiezkoa izaten da, orokorrean”. Elkarteekin, ekimen berezia sustatu zuten iaz. Aurten errepikatu nahi dute: “Bazkarirako, inguruko elkarteen artean marmitako txapelketa antolatu genuen. Elkarteek egindako marmitakoak bazkarirako erabili genituen. Jarduera horiek aurrera ateratzeko beste ezinbesteko baldintza, jendearen parte hartzea da. Alde horretatik, arazo handirik ez da izaten. Joan den urtean 250 tiket egin zituzten Herri Bazkarirako, eta jende gehiago hurbildu zen azkenean. “Gauza bat dela, edo bestela dela, egun horietan beti egoten da jendea plazan. Hori da politena”, adierazi du Alba Sistiagak. Oporretan Irundik kanpo ez daudenek, behintzat, Urdanibia plazaren inguruan izango dute hitzordua, abuztuaren 13tik 16ra.

Kamisetaren aukeraketa, Facebook-en bidez

Jai Batzordeak lehenengo bileretan izan zuen beste lehentasuna kamisetaren diseinua hautatzea izan zen. Ekainaren amaierarako egin nahi zituzten kamisetak, sanmartzialetan saldu ahal izateko. Horretarako, diseinuen lehiaketa antolatu zuten, Facebook-en bidez. Sei diseinuren artean, Alba Sistiagak egindakoak jaso zuen boto gehien.

Zer irudikatzen du kamisetak?

Normalean, Moskuko Jaietarako gai bat jartzen saiatzen gara. 2012an, adibidez, munduaren amaierako jaiak izan ziren. Aurten, plazaren birmoldatzea zela eta, Mosku zaharraren eta berriaren arteko alderatzea egin nahi genuen. Nik, ideia hori hartuta, duela urte batzuk egindako karteletako gaiak bildu eta kamisetan irudikatu nituen.

Beste urte batzuetan ere diseinatu izan duzu kamiseta. Noiztik izan duzu diseinurako zaletasuna?

Txikitatik gustatu izan zait marraztea. Asko lasaitzen nauen ohitura bat da. Niretzat hartzen dudan momentua da, eta beti saiatzen naiz horretarako denbora ateratzen. Dena den, Moskuko Jaietako kamisetarena salbuespena da. Normalean egiten ditudan gauzak, niretzat gordetzen ditut, pertsonalak dira.

Facebook bidez egin duzue bozketa. Jaiak antolatzerakoan, sare sozialek errazten al dute komunikazioa?

Facebook-en ez dago mundu guztia, baina jende asko bai. Egitarauaren berri emateko, edo bozketak egiteko, potentzial handia du. Ezinbesteko tresna ez bada ere, egia da gauzak errazten dituela.

LEHEN SOROSPENEN IKASTAROA DONOSTIAN

Noiz? Uztailaren 20tik 31ra.

Ordua? 10:00etatik 13:00etara, astelehenetik ostiralera.

Izena emateko? 943 46 46 22.

Prezioa? 110 euro

PRAKTIKA ORDAINDUAK ATZERRIKO ENPRESETAN. 2015EKO GLOBAL TRAINING BEKAK

Norentzat? Unibertsitateko titulazioa eta goi mailako lanbide prestakuntza duten 30 urtetik beherako gazteentzat.

Helburua? ordaindutako praktikak atzerriko enpresetan eta erakundeetan, 6 hilabetez, gutxienez.

Epea: Uztailak 27.

Bekaren zenbatekoa: 1,124 €

Eskaintza guztiak: http://www.industria.ejgv.eus-kadi.eus

- Aurrez aurre: Foruen karrika, 2.behea
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

GAZTELEKUKO JARDUERAK UDAN

Uztailak 17: BAZTAN ABENTURA PARK

- Adina: 12 - 25 urte
- Prezioa: 25 euro
- Ordua: 9:30etik 20:30era

Uztailak 24: CHÂTEAU D'ABADDIE

- Adina: 12 - 17 urte
- Prezioa: dohainik
- Ordua: 9:30etik 20:30era

- Izena ematea eta informazioa: irun.org/gazteleku edo irun.org/igazte

EROSI ETA IKASI IRUNEN

Joan zaitez fakturak gordetzen, beharko dituzu eta!!!

Zer? 2015/2016 ikasturterako laguntzak. Familiei zuzendutako laguntza eta merkataritzari zuzendutako babesa.

Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak:

- **Idazteko materiala eta suntsigarriak:** idazteko tresnak, koadernoak, orriak, marrazketa teknikorako materiala, informatikako kontsumigarriak.

- **Suntsigarria ez den materiala:** koadernoak, sailkatzekoak, artxibatzekoak, estutxeak, kalkulagailuak, konpasak, motxilak, testu liburuak.

- **Eskolako jardueran beharrezkoak diren janzteko artikuluak:** eskolako uniformea, mantalak, betaurrekoak edo lentilla zuzentzaileak, gorputz-hezkuntzarako arropa eta oinetakoak.

- **Eskulanetarako elementuak:** Arte hezkuntzarako, hezkuntza plastikorako eta bisualerako, teknologiarako edo musikarako (argizariak, olio-pinturak, pinturak, pintzelak) eskulan elementuak.

XXXVII. IRUNGO EUSKAL JIRA

ABUZTUAK 8 EGITARAUA:

09:00: Txalaparta hiriko hainbat tokitan.

10:00-13:00: Musika eta dantza emanaldiak hiriko auzoetan barrena.

Urdanibia Plazan:

10:30: Artisau-lanak.

11:00: Hainbat saio oholtzan: trikitixak, dantzariak etab.

11:15: Taberna irekiko da. Txistorra, sagardoa eta bestelako produktuak dastatzeko aukera izango da.

11:30: Herri kirolak.

12:00: Parte hartzen duten gurdien erakusketa

(16:00ak arte).

12:30: Bertsolariak.

13:00: Dantzariak.

14:00: Desfilean parte hartuko duten musika eta dantza taldeei eskainitako bazkaria, Irungo Atsegina Elkartean.

17:00-21:30: Taberna irekiko da. Sardinak, txistorra, sagardoa etab. dastatzeko aukera izango da.

18:00: Euskal Jiraren desfilea. Ibilbidea: Mendelu, Hondarribia kalea, Colon pasealekua, Jenaro Etxeandia plaza, Foru Kalea, Kale Nagusia, San Juan Plaza, San Martzial Kalea eta Urdanibia Plaza.

20:00: Irungo eta Hondarribiko txistulariek "Irun Hiria" Musika Bandarekin batera emanaldi bat eskainiko dute, eta "Agur Jaunak" eta "Gernikako Arbola" joko dituzte.

20:30: Kemen Dantza Taldearen eskutik, "Dantza Jira Erromeria".

Uztailaren 16tik 19ra

Zer? Karmengo Ama Birjinaren Jaiak direla eta, zenbait ekitaldi antolatu dituzte Lapize-Elitxu auzoan. Txarangak, marrazki lehiaketak, diskofestak, etab.

Programa eta ordutegi guztiak: www.irun.org

Prezioa? Doako sarrera

Uztailaren 31tik abuztuaren 2ra

Zer? Higiezinen I.go Erakusketa. Penintsulako eta Balear eta Kanariar uharteetako higiezinen eskaintza osoaren berri izateko aukera.

Non? Ficoban

Ordua? 16:00etan

Prezioa? Doako sarrera

UDAKO ERROMATAR MENUARI BURUZKO TAILERRA

Zer? Felix Mansó Gaztelumendi jatetxeko sukaldariaren eskutik. Udako menu bat prestatuko dute, erromatarren garaiko produktuekin. Parte hartzaileek prestatutako bazkaria etxera eramango dute.

Noiz? Uztailak 16

Non? Bidasoa Bizirik. Mirarietako Ama Birjinaren kalea, z/g.

Ordua? 19:30etatik 21:30etara.

Salmenta? Uztailaren 6tik aurrera Irungo turismo bulegoan txartelak eskuragarri.

Prezioa? Doako sarrera.

EKAR teleinmobiliaria

Nafarroa Ibilbidea, 7 – IRUN ☎ +34 943 628 333
info@ekarinmobiliaria.com www.ekarinmobiliaria.com

PRIMERAKO AUKERAK

Pisua salgai Irun San Juan
Azalera 60 m², 2 gela, bainugela, egongela, sukaldea, trastelekua, berogailu elektrikoa, hegoalderuntz, eguzkitsua.
Ref: 04297 109.000 €

Pisua salgai Hendaia
Azalera 65 m², 2 gela bloketz, bainugela, komuna, egongela, sukaldea, terraza, trastelekua, berogailu elektrikoa, hegoalderuntz, eguzkitsua eta bista politekin. Aparkalekua barne.
Ref: 03511 175.000 €

Pisua salgai Irun San Juan
Azalera 80 m², 3 gela, bainugela, egongela bidaiarekin, sukaldea, balkoia, hegoalderuntz, eguzkitsua eta bista politekin. Zaharberritua.
Ref: 04333 155.000 €

Pisua salgai Irun San Juan
Azalera 45 m², 2 gela, bainugela, komuna, egongela, sukaldea, balkoia, berokuntza eta igogailua. 2000ko erreforma.
Ref: 04356 140.000 €

Pisua salgai Irun Palmera
Azalera 85 m², 3 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, balkoia, trastelekua, igogailua, berokuntza, eguzkitsua.
Ref: 04299 248.000 €

Pisua salgai Hendaia Erdian
Azalera 90 m², 3 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, berokuntza. Hirugarren pisua, igogailurik gabe.
Ref: 04345 180.000 €

Etxea salgai Hendaia-Behobia
Azalera 194 m², 2.000 m²co terrenoa, 4 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, terraza, bidoinla, berokuntza, lardina, eguzkitsua. Garajea barne.
Ref: 04340 550.000 €

Lokala salgai Irun San Juan
Azalera 40 m², komuna eta eskaparate polita.
PRIMERAKO AUKERA!!
Ref: 04305 210.000 €

Lokala salgai Irun Urdanibia plazan
Azalera 25 m².
Obra bertan.
Ref: 04358 83.000 €

Eskari handiagatik, alokatzeko etxebizitzak behar ditugu!!

AURREMATRIKULA
Maiatzaren 25etik
ekainaren 5era
biak barne

MATRIKULA
Uztailaren 16tik 21era
biak barne

ATE IREKIAK

Erdi Maila: maiatzak 18
Goi Maila: maiatzak 19
18:30ean

IDASOA

Elizatxo, 10
20303 IRUN (Gipuzkoa)
Tel. 943 666 010
Fax. 943 615 380
secretaria@fpbidasoa.org

www.fpbidasoa.org

2015-2016 IKASTURTEA
ZIKLO ESKAINTZA OSOA
EGUNEZ
Hizkuntza eskaintza A, D eta eleanitza *

*** Gaztelania-Euskera-Ingelesa-Frantsesa**

GOI MAILA

FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA

FABRIKAZIO MEKANIKOKO DISEINUA

DISEINUA ETA ALTZARI-HORNIKUNTZA

OBRA ZIBILEKO PROIEKTUAK

SISTEMA ELEKTROTEKNIKOAK ETA AUTOMATIZATUAK

MANTENTZE-LAN ELEKTRONIKOA

TELEKOMUNIKAZIO ETA INFORMATIKA-SISTEMAK

ERDI MAILA

MEKANIZAZIOA

INSTALAZIOA ETA ALTZARI-HORNIKUNTZA

INSTALAZIO ELEKTRIKO ETA AUTOMATIKOAK

TELEKOMUNIKAZIO INSTALAZIOAK